


# KOSTUAK



Aitor Aiestaran  
Ander Barkin  
Maialen Etxebeste  
Miren Garmendia

# KOSTUAK

Aurreko gai guztiak jorratu ondoren, oraingoan kostuak ditugu, hau da proiektu guztiko atalik garrantzitsuenetarikoa. Proiektu bat abiarazten den momentutik gastuak non nahi agertzen dira, eta hauek modu egokian bideratzea ezinbestekoa da enpresak inolako galerarik izan ez dezan. Azken finean, negozio bat aurrera eraman ahal izateko, zein kostu dituen adierazi beharra dago. Orain arte ikusitako 9 puntu desberdinetan hartutako erabakiek, kostu bat eragin dute gure enpresa ideian. Kostuak adierazterako orduan bereziki argi eduki behar dira hurrengo kontzeptu hauek: Funtsezko baliabideak, Funtsezko elkarteak eta Funtsezko jarduerak.

Kostuen barnean hainbat mota desberdin daitezke: kostu finkoei dagokionez, produkzio kantitatearekin zer ikusirik ez dutenak dira. Azken batean beti berdinak izango diren kostuak dira hauek. Hala nola, soldata edota alokairuak. Hau dena kontuan hartuta, kostu finkoak guretzat beharrezkoak direla esango genuke, gure kasuan pertsianak muntatzeko teknikoak behar izango ditugulako.

Kostu aldakorrei erreparatuz, ekoiztutako produkzioaren arabera direnak dira. Esaterako, lehengaiak, energia... Hortaz, honako hau ere guretzat ezinbestekoa litzake, gure pertsianak urrutiko kontroleko agente bidez kontrolatzeko aukera ematen dugunez, hori gora eta behera mugitu dadin eguzki plakak erabiltzeaz gain, argi indarra erabiliko genukeelako. Hau da, elektrizitatea. Horrekin, erabilitako energia kantitatea ezberdina izango litzatekeen bezala, kostua ere bai.

Bestalde, kostu motez gain, aipatu beharreko aspektu bat dira, nola ez, kostuen egiturak. Honako honetan, enpresa batzuek prezio baxuengatik, beste batzuk beraien kalitateagatik nabarmentzen dira. Gainera, negozio eredu desberdinak nabarmendu daitezke kostuetan oinarrituz gero. Alde batetik, kostuak bultzatutako negozio ereduak dago, eta bestetik, balioan oinarritutako negozio ereduak. Kostuak bultzatutako negozio ereduari dagokionez, bere helburua kostuak minimizatzea dela esan daiteke. Balioan oinarritutako negozio ereduentzat garrantzitsua, aldiz, bezeroari eskaintzen zaion produkzioa da, kostuak beharrezkoak.